

Noiz eguneratua:
2021/05/11

NAFARROARAKO NEURRIAK

ALARMA-EGOERAREN

ONDOREN

Maiatzaren 11tik 20ra

COVID-19aren osasun-krisiari aurre egiteko

Gobernu Irekiaren eta Herritarrentzako Arretaren Zerbitzua

Herritarren Arretarako Atala

AURKIBIDEA

1. Berritasun nagusiak

2. Mugikortasuna

- Etxeratzeko agindua
- Konfinamendu perimetrala
- Bilerak eremu publikoan eta pribatuan
- Mugikortasunari buruzko beste galdera batzuk

3. Prebentzio neurri ezohikoak

- Ostalaritzako establezimenduak eta jatetxeak
- Alkoholaren salmenta
- Turismoko ostatuak
- Elkarte gastronomikoak eta peñak
- Garraioa
- Haurren jolastokiak eta aire zabaleko kirol eremuak
- Ezkontzak, bataioak, jaunartzeak eta bestelako ekitaldiak
- Hileta eta beilak eta gurtza-lekuak
- Txikizkako merkataritza establezimenduak eta lokalak, eta jarduera eta zerbitzu profesionalekoak, jendearentzat irekita daudenak
- Hipermerkatuak, saltoki ertain eta handiak, merkataritza-gune edo merkataritza-parkeak, eta haien parte direnak
- Azoka txikiak
- Ekitaldietarako funtzio anitzeko espazioak dauzkaten establezimenduak
- Akademiak, autoeskolak, eta irakaskuntza ez-arautuko ikastetxeak eta prestakuntza zentroak
- Kirol-jarduerak eta -instalazioak
- Igerilekuak

- Liburutegiak, artxiboak, erakustaretoak, monumentuak eta museoak
- Zinemak, antzokiak, auditoriumak, karpadun zirkoak, aire zabaleko esparruak eta antzeko guneak
- Biltzarrak egitea
- Topaketak, akziodunen eta elkargo profesionalen batzarrak, negozio bilerak, hitzaldiak, ekitaldiak eta antzekoak
- Turismo-gidariak, eta turismo aktiboko eta naturako irteerak
- Bingoak, eta joko- eta jolas-aretoak
- Adinekoen eta desgaitasuna duten pertsonen egoitzak

1 Berritasun nagusiak

Neurri hauek **indarrean izanen dira maiatzaren 9tik 20ra arte, biak barne**



- ([13/2021 Foru Agindua, maiatzaren 9koa, Osasuneko kontseilariak emana](#))
- Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiaren 65/2021 Autoa

1. Mugikortasuna



- **Etixeratzeko agindua bertan behera uzten da.**
- **Konfinamendu perimetrala kentzen da.**
- **Erabilera pribatuko espazioetan egindako bilerak:**
 - **bi bizikidetza-unitatetara** mugatuko dira; bizikidetza-unitatetzat joko da etxe berean bizi den pertsona taldea. Halaber, **gehienez, sei pertsona elkartzen ahalko dira.**
- **Erabilera publikoko espazioetan egindako bilerak: gehienez ere sei pertsona**, salbu eta bizikideak badira.

2. Prebentzio neurri ezohikoak

- **Erabilera publikoko establezimenduek** ahalik eta gehien aireberritu beharko dituzte lokalak, eta, betiere, **egunean hirutan gutxienez.**
- **Ordutegi berriak:**

Pandemiaren aurreko baimenak arautuko ditu hurrengo jardueren ordutegiak.



- Ostalaritzako establezimenduetako eta jatetxeetako terrazak.
- Etxera eramateko janaria prestatzeko zerbitzua.
- Kirol-instalazioen kanpoaldeko jarduerak.
- Haurren jolastokiak eta aire zabaleko kirol eremuak.
- Funtzio anitzeko aretoak.

- **Ostalaritzako establezimenduak eta jatetxeak:**
 - **Barnealdeak: itxiak.**
- **Barnealdea itxi** beharraren **salbuespenak**:
 - hoteletako eta bestelako ostatueto jantokiak: horietan ostatu hartu dutenei bakarrik. Ez da 21:00etako ordutegi orokorra aplikatuko, ezpada establezimenduak bezeroekin daukan ordutegi arrunta.
 - Zentro eta zerbitzu sanitarioen eta soziosanitarioen barneko zerbitzuak, eskola eta unibertsitateetako jantokiak eta jantoki sozialeko zerbitzuak.
- Establezimenduen **barnealdearen erabilera salbuespenez baimen daiteke** kasu hauetan:
 - Bezeroak bidaiarien nahiz salgaien garraio arloko langileak izatea, hori frogatzen badute C edo D gidabaimenarekin edo kasuan kasuko gaitasun profesionalaren agiriarekin.
 - Establezimenduak gasolina-zerbitzuguneetan edo errepideko zerbitzuguneetan kokatuta egotea, hirigunetik kanpo eta Nafarroako errepide nagusietan, aparkalekua badute bost trailer kamioirentzat baino gehiagorentzat eta bazkarien eta afarien zerbitzua ematen badute.
 - Eskuarki, barnealdean jendearendako itxiak egonen dira; gorago aipatutako langileak bakarrik artatuko dira.
 - Baldintza horiek betetzen dituzten eta Osasuneko zuzendari nagusiaren ebazpen bidez aldeztu aurretik baimena duten establezimenduen baimenek indarrean jarraituko dute, baldin eta eskatutako baldintzak betetzen jarraitzen badute.
- **Ogia eta/edo kafea saltzen duten establezimenduetan**, salmenta hori baimenduko da produktua eramateko (edo terrazan kontsumitzeko, balego), baina **ezin izanen da barnealdean kontsumitu**. Beranduenez ixteko ordua: 21:00etan.
- **Kanpoaldeko terrazak:**
 - **Irekiak**
 - **Ordutegia: beranduenez 01:00ean itxiko dira**, establezimendua husteko lanak barne, eta ezin izanen da bezero berririk onartu 00:00etatik aurrera ([8/2020 Foru Lege-dekretua, abuztuaren 17koa](#)). Udal ordenantza murriztaileagoak egon daitezke.



Iruñean, maiatzaren 1etik irailaren 30era:



- **Mahai eta aulki baxuak dituzten terrazak:** 09:00etatik biharamuneko 01:00era, eta aukera dago beste ordubate luzatzeko larunbat, igande eta jaiegunetan (udalaren onarpena behar da).
- **COVID-19aren araudiak baimendutako terrazak:** 23:00ak arte.
- **Mahai altuak eta upelak:** astelehen, astearte, asteazken eta igandeetan, 09:00etatik 22:00ak arte; ostegun, ostiral, larunbat eta jaiegunen bezperetan, 09:00etatik 23:00k arte, eta aukera dago beste ordubate luzatzeko maiatzaren 1etik irailaren 30era arte (udalaren onarpena behar da).

- **Maskara erabiltzea nahitaezkoa** izanen da beti, salbu eta edateko edo jateko unean.

- **Mahaien arteko tartea: 2 metro**

- **Mahaian eta eserita eginen da beti kontsumoa**

- **Debekaturik dago erretzea**, zigarreta elektronikokoak barne, edo nikotina bota dezaketen gailuak erabiltzea, **baldin eta ezin bada bermatu 2 metroko segurtasun-tartea. Bezeroei ez erretzea gomendatzen zaie.**

- **Mahai bakoitzaren bueltan**, gehienez ere, **lau pertsona** egonen dira. Salbuespen gisa, sei pertsona ere elkartzen ahalko dira, baldin eta pertsonen arteko 1,5 metroko tartea bermatzen bada.

- **70 cm baino gutxiagoko aldea edo diametroa duten mahaien eta/edo upelen bueltan** gehienez ere bi pertsona egonen dira, eserita.

- Janariak prestatu eta zerbitzatzeko ahalko dira, **etxera eramateko edo aurretiko hitzordua izanda establezimenduan jasotzeko.**



Pandemiaren aurreko baimenak arautuko du **ordutegia.**

- **Kalean**, eserlekuetan, espazio publikoetan, terrazetan eta antzekoetan erre daiteke, baina erretzaileak geldirik egonen dira, mugitu gabe, eta gutxienez ere pertsonen arteko 2 metroko tartea egonen da.

- **Kale zurruta debekatuta dago.**

- **Lasterkariak ("runners"):** maskara erabili behar dute ezin badute bermatu 1,5 metroko segurtasun-tartea pertsonen artean.

Jende asko biltzen den lekuetan, parkeetan, ibai-pasealekuetan, hiriguneetan edo antzekoetan, **banaka** korrika egitea gomendatzen da, **eta ez taldean**.

Establezimenduetan eta sektoreetan edukiera berriak ezarriko dira.

Iruñerriko bidaiarien hiri-garraio erregularra

- Ireki daitezkeen **leihatilak** izanez gero, **guztiak irekita** egon beharko dute, airea ibil dadin.

Beilak eta hiletak

- Gehienez ere **50 pertsona biltzen ahalko dira aire zabalean direnean, eta gehienez 10 toki itxietan**. Hiletan **segizioan 50 pertsona** elkartzen ahalko dira gehienez.

Gurtza-lekuak

- Ez da gainditzen ahalko baimendutako gehieneko edukieraren % 30, eta, nolahi ere, ez da 150 pertsona baino gehiago egoten ahalko.
- Sarrerak eta irteerak modu mailakatuan, pilaketarik ez gertatzeko.
- Gomendatzen da ez kantatzea eta gurtza-jarduerak 21:00ak arte egitea.

Haurren jolastokiak eta aire zabaleko kirol eremuak

- Baimendutako gehieneko edukieraren % 75.
- Pandemiaren aurreko baimenak arautuko du ordutegia.



Ezkontzak, bataioak, jaunartzeak eta beste ospakizun sozial, familiar, erlijioso edo zibil batzuk

- Zeremoniaren ondotik **ospakizunak** egiten badira ostalaritzako establezimenduen edo jatetxeen kanpoaldean, errespetatu beharko dira **1,5 metroko segurtasun-tarteak** pertsonen artean, eta ez da behin ere gaindituko **20 pertsonako** kopurua.

- **Ez dago baimenduta dantzatzeko pista** edo horretarako prestatutako eremua **erabiltzea**.

Hipermerkatuak, saltoki ertain eta handiak, merkataritza-gune edo -parkeak, eta haien parte direnak

- Ez dute gainditzen ahalko bertan kokatutako merkataritza-lokal bakoitzean **baimendutako gehieneko edukieraren % 30**.
- Establezimendu horietan dauden zinema- eta jolas-aretoei, jarduera bakoitzerako ezarritako arau eta ordutegi berariazkoak aplikatuko zaizkie.

Liburutegi eta ludotekak

- Liburutegi eta ludoteketan **haurrentzako jarduerak** egiten ahalko dira, gehienez ere **hamabi partaideko taldeetan**.

Zuzendutako kirol-jarduera fisikoak espazio itxietan

- **Gehienez 10 pertsonak osatutako taldeak**. Nafarroako Kirolaren Institutuak xedatutakoaren arabera arautuko dira.
- **15 pertsonako taldeetan** egiten ahalko dira, baldin eta instalazioak **parte-hartzaileko 5 metro koadroko** baldintza betetzen badu, **mugikortasun txikiko jardueretan**, eta **parte-hartzaileko 16 metro koadrokoa, mugikortasun handiko jardueretan**, aireztapen naturala erabiliz, edo behartua (mekanikoa), airearen birzirkulaziorik gabe.

Monumentuak, erakustaretoak eta museoak

- **Bisita edo jarduera gidatuak** gehienez ere **hamabi pertsonako taldeetan** eginen dira, eta **18koak izaten ahalko dira kanpoan direnean**.

Turismo-gidarien jarduera

- Turismo aktiboko eta naturako irteerak ere **gehienez ere hemezortzi pertsonako taldeetan** eginen dira, aldeztatik erreserba eginda, enpresa edo gidari profesionalekin.

Bingoak, eta joko-, apustu- eta jolas-aretoak

- **Itxiak**; ez da inongo jarduerarik eginen barnean.

Ekitaldietarako erabilera anitzeko espazioak dauzkaten establezimenduak

- Baimenduta egonen da establezimendu hauen jarduera, salbu **ospakizun** familiarrak, sozialak, lagunen artekoak edo aisialdikoak badira, **jatekoak eta/edo edatekoak tarteko, barnealdean**, horiek debekatuta egonen baitira.
- **Kanpoaldeko ospakizunak** ez dira, nolana ere, **20 pertsona** baino gehiagokoak izanen. Ulertzen da muga hori ospakizunetan ari den talde bakoitzari dagokiola, ongi berezitateko eremuetan baldin badaude.
- Kontsumoa: mahaian eta eserita eginen da bakarrik.
- Ez daude baimenduta dantzatzeko eremuak.
- Pandemiaren aurreko baimenak arautuko du **ordutegia**.
- Edonola ere, ahalik eta gehien erabiliko da maskara, eta pertsonen arteko tartea gordeko.



2 Mugikortasuna

Etixeratzeko agindua:



1. G- Etixeratzeko aginduak indarrean jarraitzen du Nafarroan?

E- Ez.

Eguneko edozein ordutan zirkulatzea baimentzen da, osasun arloko neurriak betetzen badira: maskara, pertsonen gehieneko kopurua bileretan, etab.

Espazio publikoetan sei pertsona elkartzen ahalko dira gehienez, salbu eta bizikideak badira.

Konfinamendu perimetrala

2. G- Konfinamendu perimetralak indarrean jarraitzen du Nafarroan?

E- Ez.

Maiatzaren 9tik aurrera, konfinamendu perimetrala kendu zen. Baimenduta dago pertsonak Nafarroara libreki sartu eta bertatik ateratzea.

Bilerak eremu publikoan eta pribatuan

3. G- Zenbat pertsona bil gaitzke kalean?

E-

- Edozein motatako talde edo bilkuretan **sei pertsona elkartzen ahalko dira gehienez** espazio publikoetan, salbu eta bizikideak badira.
- Errespetatu egin beharko dira osasun arloko agintariak COVID-19ari aurrea hartzeko ezartzen dituzten segurtasun eta higiene neurri guztiak.

- Mugatzen, baldintzatzen edo debekatzen ahalko dira igarobide publikoetan egiten diren bilerak eta manifestazioak, hots, Konstituzioaren 21. artikuluan araututako oinarrizko eskubidea erabiliz egindakoak, baldin eta ez bada bermatzen kutsatzeak eragozteko behar den segurtasun-tartea sustatzaileek aurkeztutako alde zuzeneko jakinarazpenean.

4. G- Zenbat pertsona bil gaitzke bilera pribatu batean?

E- Maiatzaren 9tik aurrera, erabilera pribatuko espazioetan, bilerak **bi bizikidetz-unitatetara** mugatzen dira; bizikidetz-unitatetzat joko da etxe berean bizi den pertsona taldea. Halaber, **gehienez, sei pertsona elkartzen ahalko dira.**

Ez dira sartuko muga horretan:

- Laneko edo erakundeetako jarduerak, garraioarenak edo Hezkuntzari buruzko Lege Organikoaren 3. artikuluko irakaskuntzak ematen dituzten ikastetxeenak, unibertsitateko irakaskuntza barne; era berean, ez dira sartuko aplikatzekoak diren arauetan berariazko neurriak ezarri arautzen diren horiek.

5. G- Nahitaezkoa izaten jarraitzen du maskara erabiltzeak?

E- Bai.

Nahitaezkoa izaten jarraitzen du, **bermatu ahal bada ere** pertsonen arteko segurtasun-tartea **1,5 metrokoa** dela.

12 urtetik aitzina nahitaezkoa da maskara une oro erabiltzea, honelako egoeretan:

- a. Bide publikoan eta aire zabaleko eremuetan.
- b. Erabilera publikoko eremu itxietan edo jendearendako irekita daudenetan, baldin eta eremu berean beste pertsona batzuekin elkartzeko aukera badago.
- c. Garraiobide publiko edo pribatuko mota guztietan, salbu eta barruan doazen guztiak etxe berean bizi baldin badira.

6 eta 12 urte bitarteko pertsonak, 12 urteak bete gabe badituzte, bide publikoan, aire zabaleko espazioetan eta erabilera publikoa duen edo jendearentzat irekita dagoen edozein espazio itxitan **maskarak erabiltzera behartuta daude, baldin eta ezin bada bermatu**

gutxienez 1,5 metroko segurtasun-tartea dagoela pertsonen artean.

Mugikortasunari buruzko beste galdera batzuk

6. Kale zurruta baimenduta dago?

E- Ez.

Debekatuta daude alkohola kontsumitzeko bizikidetza topaketak eta aisialdiko ospakizunak ("kale-zurruta" eta antzekoak) bide publikoan, parkeetan eta plaza publikoetan eta jendea dabilen beste toki batzuetan.

7. G- Har dezakegu ostatu landetxe batean?

E- Bai. Nolanahi ere, kontuan izan alderdi hauek:

Etxebizitza-landetxeak, apartamentu turistikoak, eta osorik alokatzen diren etxebizitza turistikoak

- Erabilera pribatuko guneetan, **bi bizikidetza-unitate desberdinetako sei pertsona elkartzen ahal dira gehienez;** bizikidetza-unitatetzat joko dira etxe berean bizi direnak, zaintzaileak eta laguntzakoak barne.

Gelaka alokatzen diren landetxeak:

- Gainerako hotel-establezimenduetan bezala jokatu da.
- Hoteletako eta ostatu turistikoetako eremu amankomunetan, okupazioak ezin izanen du gaintitu baimendutako gehieneko edukieraren % 50, eta une oro mantendu beharko da 1,5 metroko segurtasun-tartea pertsonen artean.

8. G- Lantokian 6 pertsona baino gehiago bil gaitzke?

E- Bai. Hala ere, kontu handiz ibili behar da: maskara erabiliz, pertsonen arteko 1,5 metroko tartea utziz, eskuak garbituz, dokumenturik partekatu gabe, etab.; eta maiz aireztatu behar da lantokia.

Gomendatzen da on line bilkurak lehenestea.

9. G- Bidaiatzen ahal dugu elkarrekin autoz, furgonetaz eta abarrez bizikideak ez garenok?

E- Bai. Baina aholkatzen da ez egitea, behar-beharrezkoa ez bada.

Nahitaezkoa da maskara erabiltzea eta higiene-neurri guztiak hartzea, baita barnealdea maiz aireztatzea ere.

Gizarte esparruan, bizikideak ez direnekin harremanak mugatzea gomendatzen da.

10. G- Kalean erre daiteke?

E- Oinezkoek pasiboki ez erretzeko duten eskubidea zaindu eta babesteko, eta orobat COVID-19aren kutsapen arriskua murrizteko, **kalean, eserlekuetan, ostalaritzako terrazetan, espazio publikoetan eta antzekoetan erretzen ahalko da, baina erretzaileak geldirik egonen dira, mugitu gabe, eta gutxienez ere pertsonen arteko 2 metroko tartea egonen da.**

11. G- Erre daiteke taberna, kafetegi, jatetxe eta abarretako terrazetan?

E- Debekaturik dago terrazetan erretzea, zigarreta elektronikoak barne, edo nikotina bota dezaketen gailuak erabiltzea, baldin eta ezin bada bermatu 2 metroko segurtasun-tartea terrazan dauden pertsona guztien artean.

Halere, **gomendatzen zaie** bezeroei bertan ez erretzea, arriskua dagoelako erretzaileak aerosolen emisioa handitzeko, eta, horren ondorioz, COVID-19a kutsatzeko.

12. G- Lasterka egitera noa, maskara jantzita eraman behar dut?

E-

Lasterkariak ("runners"), jarduera fisikoan ari direnean, **maskara erabili beharko dute beti ezin dutenean bermatu pertsonen arteko 1,5 metroko segurtasun-tartea**, Osasuneko kontseilariaren uztailaren 15eko 34/2020 Foru Aginduak ezartzen duenaren arabera.

Halaber, jarduera fisiko hori **pertsona asko dauden tokietan** egiten dutenean –hala nola **parkeetan, ibai ondoko pasealekuetan, hirigunean edo antzekoetan**–, gomendatzen da **banaka egitea, eta ez taldeka.**

3 Prebentzio neurri ezohikoak

13. G- Zer prebentzio neurri orokor bete behar ditugu birusaren transmisioa gutxitzeko?

E-

Zehazki, honako prebentzio neurri hauek bete beharko ditugu:

- **Maskara behar bezala erabiltzea**, indarra duen araudiarekin bat.
- **Maskarak erabiltzea** hezkuntza-eremuan.
- Pertsonen arteko **tartea**: 1,5 metro gutxienez.
- **Eskuak garbitzea**: soluzio hidroalkoholikoaz edo ur eta xaboi az.
- **Erabilera publikoko establezimenduak**:
 - o **Airezatzea, ahal dela modu naturalean eta etengabe.**
 - o **Lokalak ahalik eta gehien aireberritu behar dira**, eta, betiere, **egunean hirutan gutxienez.**

Ostalaritzako establezimenduak eta jatetxeak

14. G- Kontsumitu daiteke ostalaritzako establezimenduen eta jatetxeen barnealdean?

E- Ez.

Jarduera oro debekatzen da taberna berezi, ikuskizunetarako kafetegi, taberna, kafetegi eta jatetxe gisako lizentzia duten Nafarroako Foru Komunitateko **establezimenduen barnealdean, salbu eta edaria eskatzeko, tabakoa eskuratzeko eta komunak erabiltzeko.**

Salbuespenak

Barnealdea itxi beharretik salbuetsita daude honako hauek:

- **Hoteletako eta bestelako ostatuetako jantokiek** otorduetako zerbitzua ematen ahalko diete **horietan ostatu hartu dutenei bakarrik**. Horretarako, zorrotz bete beharko dira osasun arloko prebentzio neurri orokorrak, eta **gehienez lau pertsona egonen dira mahai bakoitzean.**

Jatetxeetan **ez da 21:00etan ixteko ezarritako ordutegi orokorra aplikatuko**, ezpada establezimenduak bezeroekin daukan ordutegi arrunta.

- **Zentro eta zerbitzu sanitarioen eta soziosanitarioen barneko zerbitzuak, eskola eta unibertsitateetako jantokiak eta jantoki sozialeko zerbitzuak.**

15. G- Ogia eta/edo kafea saltzeko zerbitzua duten establezimenduetan, barnealdean kontsumitu daiteke?

E- Ez.

Ogia eta/edo kafea saltzeko zerbitzua duten establezimenduetan, **zerbitzu hori baimenduko da produktua eramateko (edo terrazan kontsumitzeko, baldin badago), baina ezin izanen da establezimenduaren barnealdean kontsumitu.**

21:00etan itxi beharko dute beranduenez.

16. G- Baimendu al daiteke, salbuespenez, zerbitzua ematea ostalaritzako establezimendu eta jatetxe jakin batzuen barnealdean?

E- Bai.

Salbuespenez, establezimenduen barnealdea irekitzeko baimena ematen ahalko da, baldintza hauek betetzen badituzte:

- Establezimenduen **bezeroak** bidaiarien nahiz salgaien **garraio arloko langileak izatea, hori frogatzen badute C edo D gidabaimenarekin** edo kasuan kasuko **gaitasun profesionalaren agiriarekin.**
- **Establezimenduak gasolina-zerbitzuguneetan edo errepideko zerbitzuguneetan kokatuta egotea**, hirigunetik kanpo eta Nafarroako errepide nagusietan, aparkalekua badute bost trailer kamioirentzat baino gehiagorentzat eta bazkarien eta afarien zerbitzua ematen badute.

Orobat, jatetxe zerbitzua **baimenduko da, baldintza hauek betez gero:**

- **Zerbitzua** aurretik aipatutako langileei **emanen zaie bakarrik (garraio arloko langileak, C edo D gidabaimena edo gaitasun profesionalaren agiria dutenak).**
- Baimendutako establezimenduen **barnealdea itxita egonen da jende arruntarentzat.**

- Osasun agintaritzak oro har ezarritako higiene eta segurtasun neurriak bete behar dira, eta zehazki, jatetxeetarako ezarritakoak.
- Establezimenduen jabeek begiratu eta bermatu behar dute une oro betetzen direla osasun segurtasunaren arloko neurriak.

Baldintza horiek betetzen dituzten eta Osasuneko zuzendari nagusiaren ebazpen bidez **aldez aurretik baimena duten establezimenduen baimenek indarrean jarraituko dute, baldin eta eskatutako baldintzak betetzen jarraitzen badute.**

Hala ez bada, establezimendu horiek irekitzea eskatu ahal izateko, [formulario](#) hau bete eta turismo.comercio.covid19@navarra.es helbidera igorri behar da.

17. G- Ostalaritzako establezimenduek eta jatetxeek prestatu eta zerbitza dezakete etxera eramateko janaria?

E- Bai.

Janariak prestatu eta zerbitzatzeko ahalikoa dira, etxera eramateko edo **aurretiko hitzordua izanda** establezimenduan jasotzeko.

Pandemiaren aurreko baimenak arautuko du **ordutegia**.



18. G- Irekita daude terrazak ostalaritzako establezimenduetan eta jatetxeetan?

E- Bai.

Irekita jarraituko dute taberna berezi, ikuskizunetarako kafetegi, taberna, kafetegi eta jatetxe gisako lizentzia duten establezimenduek eremu publikoan dituzten aire zabaleko terrazek.



19. G- Zer ordutan itxi behar dute ostalaritzako establezimenduetako eta jatetxeetako terrazek?

E-

Ordutegia: beranduenez 01:00ean itxiko dira, establezimendua husteko lanak barne, eta ezin izanen da bezero berririk onartu 00:00etatik aurrera ([8/2020 Foru Lege-dekretua, abuztuaren 17koa](#)). Udal ordenantza murriztaileagoak egon daitezke.



Iruñean, maiatzaren 1etik irailaren 30era:

- **Mahai eta aulki baxuak dituzten terrazak:** 09:00etatik biharamuneko 01:00era, eta aukera dago beste ordubete luzatzeko larunbat, igande eta jaiegunetan (udalaren onarpena behar da).
- **COVID-19aren araudiak baimendutako terrazak:** 23:00ak arte. Adibidez, toki hauetan dauden terrazak: Sarasate pasealekua, zezen plaza, Gurutzeko plaza, Nafarroako Artxiboa, Nafarroako Museoa, etab.
- **Mahai altuak eta upelak:** astelehen, astearte, asteazken eta igandeetan, 09:00etatik 22:00ak arte; ostegun, ostiral, larunbat eta jaiegunen bezperetan, 09:00etatik 23:00k arte, eta aukera dago beste ordubete luzatzeko maiatzaren 1etik irailaren 30era arte (udalaren onarpena behar da).

20. G- Erre daiteke ostalaritzako establezimenduetako eta jatetxeetako terrazan?

E- Debekaturik dago terrazetan **erretzea**, zigarreta elektronikoak barne, edo nikotina bota dezaketen gailuak erabiltzea, **baldin eta ezin bada bermatu 2 metroko segurtasun-tartea** terrazan dauden pertsona guztien artean.

21. G- Maskara jantzi behar dugu tabernako edo jatetxeko terrazan?

E- Bai.

Maskara erabiltzea nahitaezkoa izanen da beti, salbu eta edateko edo jateko unean.

Kontrolatuko da bezeroek maskara behar bezala erabiltzen dutela.

22. G- Zertaz ari gara "terrazak" aipatzean? Zer ezaugarri izan behar dute?

E- Aire zabaleko terrazak honako hauek dira:

- Gehienez ere bi hormak, paretak edo paramentuk mugatua, gehieneko azalera itxia aldeko perimetroaren % 50ekoa duena, terraza atxikia duen eraikinaren fatxada barne, halakoa bada.
- Ez dira paramentutzat hartzen espazio fisikoak mugatzeko erabiltzen diren eta airearen zirkulazio librea ahalbidetzen duten

elementuak, finkoak nahiz mugikorak, altuera edo bolumen gutxikoak (gehienez ere metro batekoak).

- Lehendik dauden eta baimenduta dauden terrazetan ez dira paramentutzat hartuko garaiera handiagoko elementuak, finkoak edo mugikorak, baldin eta ez badira 1,60 metrotik gorakoak.

23. G- Zer baldintza bete behar dituzte terrazek ostalaritzako establezimenduetan eta jatetxeetan?

E- Terrazak baldintza hauek betez irekiko dira:

- **Mahaien arteko tartea 2 metrokoa izan behar du**, mahaien ertzetik neurtuta.
- Establezimenduen titularrek **seinaleak** egin beharko dituzte **lurrean**, mahaiak kokatu behar diren tokietan, segurtasun-tartea errespetatze aldera.
- **Maskara erabiltzea nahitaezkoa izanen da beti, salbu eta edateko edo jateko unean.**
- Kontrolatuko da bezeroek maskara behar bezala erabiltzen dutela.
- **Debekaturik dago** terrazetan **erretzea**, zigarreta elektronikoak barne, edo nikotina bota dezaketen gailuak erabiltzea, **baldin eta ezin bada bermatu 2 metroko segurtasun-tartea** terrazan dauden pertsona guztien artean.
- Halere, gomendatzen zaie bezeroei terrazetan ez erretzea, arriskua dagoelako erretzaileak aerosolen emisioa handitzeko, eta, horren ondorioz, COVID-19a kutsatzeko arriskua ere.
- **Mahaietan eta eserita** egingen da kontsumoa.

24. G- Zenbat pertsona bil gaitzke terraza batean?

E-

- Mahai bakoitzaren bueltan, **gehienez ere, lau pertsona egoten ahal dira**. Salbuespen gisa, **gehienez ere sei pertsona elkartzen ahalko dira, baldin eta mahaiaren edo mahai multzoen neurriek 1,5 metroko segurtasun-tartea bermatzen badute** pertsonen artean.
- **70 cm baino gutxiagoko aldea edo diametroa duten mahaien eta/edo upelen bueltan gehienez ere bi pertsona** egoten dira eta, kasu guztietan, eserita.
- Mahaietan eta eserita egingen da kontsumoa.

25. G- Handitu al dezakegu aire zabaleko terrazarako eremua?

E- Toki-erakundeei gomendatzen zaie aukerak azter ditzatela aire zabaleko terrazarako eremuak handitzeko, baina beti bermatu beharko da mahaien arteko eta pertsonen arteko segurtasun-tartea.

Alkoholaren salmenta

26. G- Zer ordutara arte sal daiteke alkohola?

E- Debeku da alkohola saltzea 21:00etatik 08:00etara bitarte, publikoari saltzen dioten mota guztietako establezimenduetan, edozein dela ere duten lizentzia. Salbuetsita daude taberna berezi, ikuskizunetarako kafetegi, taberna, kafetegi eta jatetxe gisako lizentzia duten establezimenduak.

Turismoko ostatuak

27. G- Turismoko ostatuak irekita daude?

E- Bai. Turismoko ostatuen jarduera ez dago geldiarazia Nafarroan.

Hotelak

- Hoteletako eta ostatu turistikoetako **eremu amankomunetan, okupazioak ezin izanen du gainditu baimendutako gehieneko edukieraren % 50**, eta une oro mantendu beharko da 1,5 metroko segurtasun-tartea pertsonen artean.
- Hoteletako eta ostatu turistikoetako kirol-instalazioei dagokienez (adibidez, igerilekuak eta gimnasioak), instalazio horietarako berariazko neurriak aplikatu beharko dituzte.

Aterpetxeak

- Aterpetxeak: **ohatzeak (literak) dituzten logeletan** ezin bada pertsonen arteko gutxieneko segurtasun-tartea gorde, okupazioa baimenduriko gehieneko **edukieraren ehuneko hogeita hamar** izatea baimenduko da.

- Pertsonen arteko gutxieneko segurtasun-tartea bermatzea ahalbidetzen duten oheak dituzten logelak edo **logela bereziak dituzten aterpetxeetan**, okupazioa baimenduriko **gehieneko edukieraren ehuneko berrogeita hamar** izatea baimenduko da.
- Establezimenduaren titularrek antolamendu neurri batzuk ezarriko dituzte, egokiak direnak pilaketak saihesteko eta barnealdean pertsonen arteko segurtasun-tartea gordetzen saiatzeko. Bestela, babes fisikorako beste neurri batzuk ezarriko dituzte bezeroak elkarrengandik zein langileengandik behar bezala babesteko, maskara janztea ekarriko dutenak.
- Establezimenduak jatetxe edo ostalaritzako zerbitzu motaren bat ematen badu, zerbitzuak establezimendu horietarako ezarritako baldintzak beteko ditu.

Elkarte gastronomikoak eta peñak

28. G- Elkarteek itxita jarraitu behar dute?

E- Bai

Bertan behera dago elkarte gastronomikoen eta peñen jarduera, **eta itxita egon behar dute.**

Jardueren etete horretatik **salbuetsita daude** bostehun biztanle baino gutxiagoko udalerrri eta kontzeju txikietan kokatutakoak, udalerrri edo kontzejuan ez badago kafetegi, jatetxe edo tabernarik, eta haiek badira herritarrek elkartzeko dituzten lokal bakarrak. Kasu horietan, eta salbuespen gisa, alkateek baimena eman dezakete horiek irekitzeko, baldin eta eskatzen diren baldintzak betetzen badituzte eta ostalaritzarako eta jatetxeetarako aurreikusitako osasun arloko prebentzio neurri guztiak betetzen badira.

Garraioa

29. G- Zer neurri gomendatzen dira bidaiari gutxiago elkar daitezen garraiobideetan jende gehien ibiltzen den orduetan?

E- Gomendatzen da enpresek eta administrazio publikoek langileen sarrera-irteerak malgutu ditzatela, edo erraztasunak eman, bidaiari gutxiago elkar daitezen Iruñerriko hiri-garraio erregularreko linea nagusietan jende gehien ibiltzen den orduetan.

30. G- Zer baldintza bete behar ditu garraioak?

E- Iruñerriko bidaiarien hiri-garraio erregularreko ibilgailuen okupazioak **ez du gaindituko** baimendutako gehieneko edukieraren **% 50**, ordu-tarte guztietan, betiere flotaren gehieneko edukierak horretarako aukera ematen badu.

Ibilgailuetan, **baldintza** hauek bete beharko dira:

- **Ireki daitezkeen leihatilak** izanez gero, **guztiak** irekita egon beharko dute airearen zirkulaziorako.
- **Sarreran eta irteeran gel hidroalkoholikoaren banagailuak** paratuko dira, **eta erabiltzaileei gogoraraziko zaie komeni dela eskuak garbitzea** autobusera sartzean eta horretatik ateratzean.
- **Hiriarteko garraioari dagokionez, eskatuko da autobusetan gel hidroalkoholikoa egotea** sarreran zein irteeran, eta erabiltzaileei gogoraraziko zaie komeni dela eskuak garbitzea autobusera sartzean eta horretatik ateratzean.
- Aurretik aipatutakoa ez zaio **eskola-garraioari** aplikatuko, jada aplikagarriak zaizkien osasun-babeserako neurriak ezertan eragotzi gabe.

Haurren jolastokiak eta aire zabaleko kirol eremuak

31. G- Joan gaitzke jolastokietara edo aire zabalean dauden erabilera publikoko kirol eremuetara?



E- Bai, haurren jolastokiak eta aire zabaleko kirol eremuak erabiltzen ahal dira, baldin eta ez bada gainditzen baimendutako gehieneko edukieraren % 75.

Pandemiaren aurreko baimenak arautuko du **ordutegia**.

Ezkontzak, bataioak, jaunartzeak eta bestelako ekitaldiak

32. G- Ezkontzak, bataioak, jaunartzeak eta beste ospakizun sozial, familiar, erlijioso edo zibil batzuk. Zer edukiera gorde behar da?

E-

- Gurtza-lekuetan egiten badira, leku horietarako ezarritako edukieren arabera arautuko dira.
- Gurtza-lekuetan **ez da gainditzen ahalko baimendutako gehieneko edukieraren % 30**, eta, nolana ere, **ez da 150 pertsona baino gehiago** egoten ahalko.
- **Ospakizunetan ez abestea gomendatzen da.**
- Gurtza-lekuak ez diren lokaletan ospatzen direnen kasuan, pertsonen artean 1,5 metroko segurtasun-tartea errespetatu beharko da (hots, 2,25 metro koadro pertsona bakoitzeko) lokal horien barnean.

Zeremonia ondoko ospakizunak

Ezkontza, bataio, jaunartze eta bestelako ospakizun sozial, familiar, erlijioso edo zibil batzuetan, zeremoniaren ondotik ospakizunak egiten badira **ostalaritzako establezimenduen edo jatetxeen kanpoaldean**, errespetatu beharko dira **1,5 metroko segurtasun-tarteak** pertsonen artean, eta **ez da behin ere gaindituko 20 pertsonako kopurua**. Ulertzen da muga hori ospakizunetan ari den talde bakoitzari dagokiola, ongi bereizitako eremuetan baldin badaude.

Ez dago baimenduta dantzatzeko pista edo horretarako prestatutako eremua erabiltzea.

Hiletak, beilak eta gurtza-lekuak

33. G- Zer baldintza bete behar dira hileta eta beiletan?

E- Hiletetan eta beiletan **gehienez ere 50 pertsona biltzen ahalko dira aire zabalean direnean**, eta **10 pertsona gehienez toki itxietan direnean**. Hiletan segizioan **50 pertsona elkartzen ahalko dira gehienez**.

34. G- Edukieraren zer ehuneko bete daiteke gurtza-lekuetan?

E- Gurtza-lekuetan, **ezin izanen da gainditu baimendutako gehieneko edukieraren % 30**, eta, **betiere, 150 pertsona gehienez**; sarrerak eta irteerak mailakatuak izanen dira, eta saihestuko

da jendea pilatzea, bai gurtza-lekuen barruan, bai sarbideetan eta irteeretan.

Ebidentzia zientifikoa baitago adierazten duena kantuaren bidez kutsatzeko arriskua handitzen dela, **gomendatzen da ospakizunetan ez kantatzea.**

Txikizkako merkataritza establezimenduak eta lokalak eta jarduera eta zerbitzu profesionalekoak, jendearentzat irekita daudenak.

35. G- Edukieraren zer ehuneko bete daiteke txikizkako merkataritza establezimendu eta lokaletan eta jarduera eta zerbitzu profesionalekoetan, jendearentzat irekita badaude?

E-

- Ezin izanen da gainditu **baimenduriko gehieneko edukieraren % 50.**
- **21:00etan itxi behar dute** beranduenez.
- Establezimenduen ate nagusietan, bai barrualdean, bai kanpoaldean, **ongi ikusten den kartel bat** jarri beharko da, gutxienez ere DIN A3 tamainakoa, eta **horretan adierazi beharko dira lokalaren gehieneko edukiera eta orain baimentzen dena.**

Hipermerkatuak, saltoki ertain eta handiak, merkataritza-gune edo merkataritza-parkeak, eta haien parte direnak.

36. G- Zer neurri bete behar dira hipermerkatuetan, saltoki ertain eta handietan, merkataritza-gune edo merkataritza-parkeetan, eta haien parte diren gunetan?

E-

- Ez dute gainditzeko ahalko **bertan kokatutako merkataritza-lokal bakoitzean baimendutako gehieneko edukieraren % 30.**
- Puntu honetan aipatutako **establezimenduetan dauden zinemei**, ezarritako arau eta ordutegi berariazkoak aplikatuko zaizkie.

- Irekita egoteko ordutegia **21:00ak artekoa** izanen da beranduenez.
- Merkataritza-guneetako establezimenduen ate nagusietan, bai barrualdean, bai kanpoaldean, **ongi ikusten den kartel bat edo pantaila bat** edo antzekoa jarri beharko da, eta **horretan adierazi beharko da lokalaren edukiera**. Kartela, pantaila edo antzekoa gutxienez ere DIN A3 tamainakoa izanen da.
- Establezimenduen ate nagusietan, ongi ikusten den kartel bat, pantaila bat edo antzeko zerbait jarri beharko da, gutxienez ere 70 x 120 cm izanen dituen, eta horretan adierazi beharko da establezimenduaren gehieneko edukiera orokorra (merkataritza-gunean dauden establezimendu guztietan baimendutako edukieren batura).
- Ez da utziko bezeroak gune komunetan egotea, barne direla atsedenguneak, saltokien arteko joan-etorrietarako ez bada.
- Josteta eremuak itxita egon beharko dira, hala nola haurren jolastokiak edo antzekoak.

Azoka txikiak

37. G- Zer baldintza bete behar dituzte azoka txikiak?

E- Bide publikoan, aire zabalean nahiz salmenta ez-sedentarioan aritzen diren azoketan, hots, azoka txikiak deitu ohi diren horietan:

- **Saltokiak aurrez aurre bereizita** egon beharko dira **igarobide baten bidez**, erabiltzaileak handik igaro daitezen. Igarobide horrek **gutxienez ere 4,5 metroko zabalera** izan beharko du, eta bermatu beharko du **erabiltzaileen artean gutxienez ere 1,5 metroko tartea** gordetzen ahal dela.
- **Elkarren ondoko bi saltokien artean elementu isolatzaileak paratu beharko dira**, elkarren artean independente izan daitezen; halakorik ez bada, 1,5 metroko tartea egon beharko da, gutxienez.
- **Erabiltzaileak ezin izanen dira inolaz ere saltokien alboetatik ibili**. Barrutiak **sartzeko gune bat eta irteteko beste bat edukiko ditu**, eta biak ongi bereizita egonen dira.

Ekitaldietarako funtzio anitzeko espazioak dauzkaten establezimenduak

38. G- Ireki daitezke ekitaldietarako funtzio anitzeko espazioak dauzkaten establezimenduak?

E-

- **Baimenduta egonen da** establezimendu hauen jarduera, **salbu ospakizun familiarrak, sozialak, lagunen artekoak edo aisialdikoak badira, jatekoak eta/edo edatekoak tarteko, barnealdean egindakoak, horiek debekatuta egonen baitira.**

- Establezimenduen **kanpoaldean** egiten diren **ospakizunetan**, ez da behin ere gaindituko **20 pertsonako** kopurua. Ulertzen da muga hori ospakizunetan ari den talde bakoitzari dagokiola, ongi bereizitako eremuetan baldin badaude. **Mahaian eserita baino ezin da kontsumitu**, eta ostalaritzarako eta jatetxeetarako zehaztutako neurri guztiak bete beharko dira.

Edonola ere, **ahalik eta gehien erabiliko da maskara, eta pertsonen arteko tartea gordeko.**

- **Ez da baimenduko dantzatzeko eremurik erabiltzea.**

- Pandemiaren aurreko baimenak arautuko du **ordutegia**.



Akademiak, autoeskolak, eta irakaskuntza ez-arautuko ikastetxeak eta prestakuntza zentroak.

39. G- Edukieraren zer ehuneko bete daiteke akademia, autoeskola eta irakaskuntza ez-arautuko ikastetxeetan eta prestakuntza zentroetan?

E- Akademia, autoeskola, eta irakaskuntza ez-arautuko ikastetxeetan eta prestakuntza zentroetan, jarduera **aurrez aurrekoa izaten ahalko da**, baldin eta **gainditzen ez bada** baimendutako **gehieneko edukieraren % 50 eta bermatzen bada 1,5 metroko segurtasun-tartea** pertsonen artean.

21:00etan itxiko dira beranduenez.

Kirol-jarduerak eta -instalazioak

Jarraian, Nafarroako Foru Komunitatean kirol-jarduera garatzeko ezohiko prebentzio-neurri espezifikoak azaltzen dira.

Argibide gehiago hemen:

<https://www.deportenavarra.es/imagenes/documentos/faqs-nueva-normalidad-deporte-navarra-11-marzo-2021-438-es.pdf?ts=20210316142108>

40. G- Zer neurri bete behar dira kirol-jardueretan eta -instalazioetan?

E-

- Kirol-jardueretarako edukierak, barnealdean nahiz kanpoaldean egiten direnetarako, Kirolaren Institutuko zuzendari kudeatzailearen ebazpen baten bidez ezarriko dira.
- Debekatuta dago iturriak, saunak, bainu turkiarrak edo antzekoak erabiltzea.
- Aldagelak eta dutxak erabiltzen ahalko dira bakar-bakarrik zuzendutako kirol-jarduera fisikoetan, baita baimendutako entrenamendu eta lehiaketetan ere.
- Baimenduta dago dutxak erabiltzea, banaka; hau da, ezin izanen dituzte pertsona batek baino gehiagok erabili aldi berean. Neurri hau ez da aplikatuko baimendutako lehiaketetan.
- Gimnasioetan kirol-jarduera egiteko, hitzordua eskatu beharko da aurretik. Mugitzea eskatzen duten jardueretarako, 20 m²-ko espazioa gordeko da pertsona bakoitzeko. Mugitu gabe egiten diren jardueretan, berriz, 8 m²-ko espazioa mantenduko da pertsona bakoitzeko. Nolanahi ere, **nahitaezkoa izanen da maskara erabiltzea.**
- Lehiaketa ez-profesionalak eta kirol-ekitaldiak ikusleekin egiten ahalko dira, baldin eta ez bada gainditzen baimendutako gehieneko edukieraren % 50. Instalazio itxietan, 200 pertsona joaten ahalko dira gehienez publiko gisa, eta beti errespetatu beharko dira 1,5 metroko segurtasun-tartea pertsonen artean eta maskararen erabilera egokia.
- Lehiaketa ez-profesionalen eta aire zabaleko instalazioetan egiten diren kirol-ekitaldien kasuan, 400 pertsona joaten ahalko dira gehienez publiko gisa, eta beti errespetatu beharko dira 1,5 metroko segurtasun-tartea pertsonen artean eta maskararen erabilera egokia.
- Barrualdean 200 pertsona baino gehiago eta kanpokoetan 400 pertsona baino gehiago biltzen dituzten jardueretarako, Nafarroako

Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuaren txosten loteslea beharko da.

- Nolanahi ere, debeku da jatea eta edatea kirol-lehiaketa eta - ekitaldietan.
- Pandemiaren aurreko baimenak arautuko du **kanpoaldean** egiten diren jarduerak ixteko edo bukatzeko ordutegia.
- Hala ere, 21:00etatik aurrera erabiltzen ahalko da kirol-instalazioen **barnealdea** lehiaketak eta entrenamenduak egiteko, baldin eta horretarako baimena ematen badu instalazioaren titularrak.



41. G- Nola egin behar dira zuzendutako kirol-jarduera fisikoak espazio itxi eta irekietan?

E- Honako hauek jotzen dira zuzendutako jardueratzat:

- **aisialdiarekin, prestakuntza fisikoarekin eta osasunarekin zerikusia duten jarduera fisikoak oro, partaideen adina edozein delarik ere.**
- **Ez dira sartzen** jarduera horien barruan **kirol modalitate bateko entrenamenduak edo kirol hastapeneko eskolak.**

Baldintzak:

- Zuzendutako kirol-jarduera fisikoak espazio itxietan egiteko taldeetan, **ez dira arituko 10 pertsona baino gehiago**, eta Nafarroako Kirolaren Institutuak xedatutakoaren arabera arautuko dira.
- Edonola ere, zuzendutako kirol-jarduera fisikoak hamabosnaka egiten ahalko dira espazio itxietan, instalazioak 5 metro koadro baldin baditu parte-hartzaile bakoitzeko, mugikortasun txikiko jardueretarako, eta 16 metro koadro baditu parte-hartzaile bakoitzeko, berriz, mugikortasun handiko jardueretarako, aireberritze naturala badu edo artifiziala (mekanikoa), airearen birzirkulaziorik gabe.
- Hezkuntzari buruzko Lege Organikoaren 3. artikuluan aipatzen diren irakaskuntzen babesean egiten diren kirol-jarduera fisikoak salbuetsirik daude.
- **Nahitaezkoa izanen da maskara erabiltzea** instalazioetako sarbide eta joan-etorrietan, bai eta **kirol-jardueretan ere, intentsitate txikiko modalitateak badira**. Kirol-praktika mota

bakoitzaren modalitatea arautuko da Nafarroako Kirolaren Institutuan xedatutakoaren arabera.

- **21:00etan itxiko dira beranduenez.**

- **Lasterkariak ("runners")**, jarduera fisikoan ari direnean, **maskara erabili beharko dute beti ezin dutenean bermatu pertsonen arteko 1,5 metroko segurtasun-tartea**, Osasuneko kontseilariaren uztailaren 15eko 34/2020 Foru Aginduak ezartzen duenaren arabera (foru agindu horrek prebentzio neurriak ezartzen ditu COVID-19ak eragindako osasun krisian Nafarroako Foru Komunitatean maskara erabiltzeari dagokionez).

- Halaber, jarduera fisiko hori **pertsona asko dauden tokietan** egiten dutenean –hala nola parkeetan, ibai ondoko pasealekuetan, hirigunean edo antzekoetan–, **gomendatzen da banaka egitea**, eta ez taldeka.

Igerilekuak

42. G- Edukieraren zer ehuneko bete daiteke igerilekuetan eta zer neurri hartu behar dira?

E- Aisialdiko igerilekuetan edukieraren % 50eko muga gorde beharko da, hala haietara sartzeko nola aisialdiko jardueretan bertan.

Baimenduta dago aldagelak erabiltzea, eta dutxak banaka erabiliko dira, hau da, ezin izanen dituzte pertsona batek baino gehiagok erabili aldi berean.

Nafarroako Kirolaren Institutuak arautuko du kirol-jardueretarako igerilekuen erabilera.

Liburutegiak, artxiboak, monumentuak, erakustaretoak eta museoak

43. G- Edukieraren zer ehuneko bete daiteke liburutegietan eta zer neurri hartu behar dira?

E- Liburutegiek (titulartasun publikokoak zein pribatukoak izan) beren jarduerari lotutako zerbitzuak emanen dituzte, baina **ezin izanen da gainditu baimenduriko gehieneko edukieraren % 50.**

Sustatuko da erabiltzaileek zerbitzuak telematikoki erabiltzea.

Liburutegi eta ludoteketan **haurrentzako jarduerak egiten ahalko dira, gehienez ere hamabi partaideko taldeetan.**

Artxiboek (titulartasun publikokoak zein pribatukoak izan) beren jarduerari lotutako zerbitzuak emanen dituzte, baina gehieneko okupazioak ezin izanen du gainditu baimenduriko gehieneko edukieraren % 50.

21:00etan itxiko dira beranduenez.

44. G- Zer neurri bete behar dituzte monumentu, erakustareto eta museoek?

E-

- Museoetan eta erakustaretoetan egiten diren jardueretan, **ezin izanen da gainditu baimendutako gehieneko edukieraren % 50.**
- Inaugurazioak eta ekitaldi sozialak egiten ahalko dira, baldin eta jatetxe zerbitzurik ez badago, eta segurtasun-tarteak bermatzen ahal badira. Edukiera % 50ekoa izanen da, eta jarlekuak aurretik esleituko dira. Jarduera zutik egiten bada, edukiera irizpide honi jarraikiz kalkulatu da: 3 metro koadro pertsonako.
- Bisita edo jarduera gidatuak **gehienez ere hamabi pertsonako taldeetan** eginen dira, **eta 18koak izaten ahalko dira kanpoan direnean.**
- **21:00etan** itxi behar dute beranduenez.

Zinemak, antzokiak, auditoriumak, karpadun zirkoak, aire zabaleko esparruak eta antzeko guneak

45. G- Edukieraren zer ehuneko bete daiteke zinema-areto, antzoki, auditorium, karpadun zirko eta antzekoetan, aire zabaleko esparru eta antzeko beste lokal batzuetan, eta ikuskizun publikoetarako eta jostetako edo aisialdiko jardueretarako establezimenduetan?

E- Zinemak, antzokiak, auditoriumak, karpadun zirkoak eta antzekoak:

- Beren jarduera gauzatzen ahalko dute aurretik esleitutako eserlekuak erabilita, baldin eta areto bakoitzean **baimendutako gehieneko edukieraren % 50 gainditzen ez bada.**

- Nolanahi ere, **gehieneko edukiera ezin izanen da 200 pertsonatik gorakoa izan.**
- **Debeku da jatea eta edatea** puntu honetan aipatzen diren ikuskizun edo jardueretan.
- **22:00etan itxi behar dute beranduenez.**

Aire zabaleko esparruetan eta antzeko lokaletan egiten diren jardueretan, eta ikuskizun publikoetarako, josteta edo aisia jardueretarako aire zabaleko establezimenduetan egiten direnetan,

- ezin izanen da gainditu baimendutako gehieneko edukieraren % 50; edonola ere, 400 pertsona bilduko dira gehienez.

Barnealdean 200 pertsona baino gehiago eta kanpokoetan 400 pertsona baino gehiago bildu nahi dituzten jardueretarako, Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuaren txosten loteslea beharko da.

Biltzarrak, topaguneak, hitzaldiak, ekitaldiak eta antzekoak.

46. G- Biltzarrak egin daitezke?

E- Lehenetsiko da biltzarrak telematikoki egitea. Beste modalitate edo formatu batean egin nahi izanez gero, Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuari jakinarazi beharko zaio aurretik.

Topaketak, akziodunen eta elkargo profesionalen batzarrak, negozio bilerak, hitzaldiak, ekitaldiak eta antzekoak.

47. G-Topaketak, akziodunen eta elkargo profesionalen batzarrak, negozio bilerak, hitzaldiak, ekitaldiak eta antzekoak egin daitezke?

E- Topaketak, akziodunen eta elkargo profesionalen batzarrak, negozio bilerak, hitzaldiak, ekitaldiak eta antzekoak egiten ahalko dira, baldin eta **ez bada gainditzen baimendutako gehieneko edukieraren % 50, eta betiere 200 pertsona gehienez**; horiek eserita egon beharko dute, 1,5 metroko segurtasun-tartea bermatuz horien artean. Horrek ez du galaraziko modalitate telematikoa gomendatzea.

Bozketarik egin behar bada, pertsonak mugitzea saihesten duten bozketa sistemak erabiliko dira.

Turismo-gidariak, eta turismo aktiboko eta naturako irteerak

48. G- Zer baldintza bete behar dituzte turismo-gidariak, eta turismo aktiboko eta naturako irteerak?

E-

Turismo-gidariak

- Jarduera horiek, barnean zein kanpoan, ahal dela, **aldez aurretik hitzordua eskatuta** egingen dira eta **taldeak, gehienez ere, hamabi pertsonakoak izanen dira**.
- Jarduera egiten den bitartean, saihestuko da jende-pilaketak sor daitezkeen eremu edo tokietatik ibiltzea. Halaber, errespetatu behar dira monumentuak eta bestelako kultur ekipamenduak bisitatzeko baldintzak, foru agindu honetan ezarritakoaren arabera.

Turismo aktiboko eta naturako irteerak

- Turismo aktiboko eta naturako irteerak **hemezortzi pertsonako taldeendako ere onartuko dira, aldez aurretik erreserba eginda**, enpresa edo gidari profesionalekin.

Bingoak, eta joko-, apustu- eta jolas-aretoak

49. G- Bingoak, joko-, apustu- eta jolas-aretoak ireki dezakete?

E- Bertan behera uzten da jarduera oro bingoen, eta joko- eta jolas-aretoen establezimenduen **barnealdeetan**..

Adinekoen eta desgaitasuna duten pertsonen egoitzak

50. G- Indarrean jarraitzen du adinekoen eta desgaitasuna duten pertsonen egoitzetara bisitan joateko aukerak?

E- Bai.

Ahaideendako informazio guztia eta ohiko galderak hemen:

- <https://www.navarra.es/eu/adinekoak-edo-desgaitasuna-duten-pertsonak-egoitzetan-dituzten-familientzako-informazioa>